

euskararen  
berripapera

eb

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA

Doako harpidetza:

Papera: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia kalea, 1 - 01010 VITORIA -GASTEIZ

Tel.: 945 01 69 44 | berripapera@ej-gv.es

Bertsio digitala: [www.euskara.euskadi.net/berripapera](http://www.euskara.euskadi.net/berripapera) <http://twitter.com/berripaperaEJGV>

SAKONEAN

01|02

BERRIAK

03

MOTZEAN

04

# Euskara eta teknologia berriak, bidelagun

Askotan entzun izan dugu azken urteotan informazioaren eta komunikazioaren gizartean bizi garela. Teknologia berriak eta Internetek, bereziki, eguneroko bizimodua aldatu digute: lan egiteko modua, negozioak egiteko modua, pertsonekin erlazionatzeko modua, zerbitzuak jasotzeko modua, informazioa jasotzeko modua... Mundu berri horretan euskara bere lekua bilatuz joan da eta, dirudenez, ondo egokitzen ari da garai berrietara.

Gaur egun teknologia berriak euskaraz erabiltzeko gero eta aukera handiagoa dugu: oinarrizko softwarea, ofimatika, hiztegi elektronikoak, zuzentzaile ortografikoak, wikipedia euskaraz, euskarazko blogak, sare sozialak euskaraz, azken urteotako lorpen handienetakoa izan den itzultzaile automatikoa... Zerrenda hori, gainera, haziz doa, etenik gabe. /02



# Euskaraz klik egiteko aukera paregabea

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIETAN EUSKARAK EGINDAKO LORPEN HANDIENETAKO BAT AURTENGO OTSAILEAN GERTATU ZEN, GAZTELANIA-EUSKARA ITZULTZAILE AUTOMATIKOA ABIAN JARRI ZENEAN. HORREN AURRETIK, ORDEA, ETA BAITA ONDOREN ERE, EUSKARAK ETA TEKNOLOGIA BERRIEK BIDEA ELKARREKIN EGIN DUTE, ETA HALA EGITEN JARRAITUKO DUTE ETORKIZUNEAN ERE. KLIK BAT EGINEZ, SAREAN HAINBAT PROGRAMA ETA APLIKAZIO TOPA DEZAKEGU EUSKARAZ.

# E

uskarazko informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, Eusko Jaurlaritzak hainbat ekimen sustatu ditu eta hainbat plan bideratu EAEn teknologia horiek garatzeko eta euskara haietan integratzeko. Bestalde, informazioaren eta komunikazioaren teknologien sailkapena ere egin du (IKT Inbentarioa). Euskarazko IKTen inbentarioaren helburu nagusia euskararen eta IKTen sektoreko eragileek (hornitzaileak, kolaboratzaileak, erabiltzaile-taldeak, elkartek) gauzatzen dituzten proiektuen eta baliabideen informazioa sistematikoki bilduta edukitzea da. Informazio hori hemen aurki daiteke: [www.euskara.euskadi.net/ikt\\_inbentarioa](http://www.euskara.euskadi.net/ikt_inbentarioa).

## ITZULTZAILE AUTOMATIKOA, TRESNA LAGUNGARRIA

Lehen esan bezala, aurten jarri da martxan gaztelania-euskara itzultzaile automatikoa. Urte askotako lana izan da, baina azkenean argia ikusi du, eta herritar guztien eskura dago jada helbide honetan: [www.itzultzailea.euskadi.net](http://www.itzultzailea.euskadi.net). Testu labur orokorrak itzultzeko tresna lagungarria da eta, horrez gain, webguneak ere itzultzen ditu. Harrera oso ona izan du orain arte eta, okerrik ezean, 2013aren erdialderako, itzulpen-sistemari euskara-gaztelania eta ingelesa-euskara norabideak erantsiko zaizkio. Bestalde,



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza Itzulpen Memorien Banku Publikoa ere garatzen ari da.

2011. urtearen amaieran, Wikipediaren euskarazko edizioan 11.000 sarrera berri egin ziren, eta ordura arte editatu ziren 100.000ri gehitu zitzaizkien. Ekarpen esanguratsua izan da hori, eta sarrera horiek guztiak sarean jartzeko *Lur Entziklopedia* hartu da oinarritzat. Bestalde, apirilean, *Lur Hiztegi Entziklopedikoa* eta *Lur Entziklopedia Tematikoa* jarri ziren sarean.

Blog interesgarri batzuk ere sortu dira euskaraz Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak sustatuta. *Sukaldean.com* da lehenengoa, eta gastronomiaz gozatzeko aukera ematen du; *etxebizitza.net* da bigarrena, etxe bat eskuratu, eraiki edo eraberritu nahi duten guztientzat prestatutako gunea.

Sare sozialetan ere euskararen presentziak gero eta indar handiagoa du. Hala, abuztutik aurrera, Twitter euskaraz dugu, mikroblogging sare sozial famatuaren interfazea euskaraz jartzeko aukera. Albiste pozgarria euskal twitterlariontzat.

## HAINBAT APLIKAZIO EUSKARAZ

Baina euskara eta teknologia berrien inguruan azkenaldian izandako nobedade horiez gain, aurretik ere garatuta zeuden zenbait aplikazio, oinarritzako softwarea adibidez. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak urteak daramatza euskarazko software-tresnak jartzen erabiltzaileen eskura helbide honetan: [www.euskara.euskadi.net/euskara\\_soft](http://www.euskara.euskadi.net/euskara_soft).

Sistema eragileei dagokienez, Windows erabiliz gero, gaztelaniazko bertsioaren gainean euskarazko interfaze-paketea instalatu eta pantailak euskaraz agertuko dira. Norberaren bertsioaren arabera aukeratu behar da paketea: Microsoft Windows 7 (64 bit eta 32 bit), Microsoft Vista eta Microsoft XP.

Bulegotikan edo Ofimatikan ere, Microsoft Office-ren (Word, Excel, Power Point, Outlook) euskarazko interfaze-paketea deskarga daiteke. Instalatzeko, beharrezkoa da gaztelaniazko bertsioa instalatuta edukitzea. Honako hauek dira eskuragarri dauden bertsioak: Microsoft Office 2003, 2007 eta 2010. Eta software libreko OpenOffice.org edo LibreOffice erabiliz gero, euskarazko bertsioak har daitezke.

Bestalde, edozein hizkuntzatan orde-nagailuan zuzen eta segurtasunez erabiltzeko, idazten dugun hizkuntzari dagokion zuzentzaile ortografikoa aktibatuta eduki behar dugu. Euskararen kasuan, Xuxen da eskura dugun zuzentzailea. Microsoft Office-ren bertsioetan integratuta badago ere, bertsio eguneratuak eskaintzen dira [www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net) webgunean. Gainera, OpenOffice-n (LibreOffice-n) txertatzeko bertsioa ere hor dago eskuragarri. Zenbait kasutan, berriz, behar-beharrezkoak izango ditugu hiztegiak eta terminologia-bankuak. Egun, hiztegi elektroniko elebakarrak eta elebidunak kontsulta daitezke on line, edota terminologia-kontsultak egin Euskalterm Terminologia Banku Publikoan ([www.euskara.euskadi.net/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.net/euskalterm)).

Beraz, argi ikus daiteke euskararen eta teknologia berrien arteko harremana gero eta estuagoa dela, eta hemendik aurrera harreman hori are estuagoa izango dela.

# 'Euskal Kultura Saila' bilduma abian



Etxepare Euskal Institutuak atera berri du *Euskal Kultura Saila / Colección Cultura Vasca / Basque Culture Series* izenburu duen bilduma. Euskara eta euskal kulturari buruzko informazioa bildu eta zabaltzen lagunduko duen tresna interesgarria da bilduma.

Testuak gai bakoitzean aditu diren egileei eskatu zaizkie, eta kanpotarrentzat ez ezik, euskaldunontzat ere gure herriko hizkuntzaren eta sorkuntzaren historiara eta egungo egoerara hurbiltzeko oso lagungarri izango dira.

Hamabi liburuk osatuko dute saila. Hona hemen irailean aurkeztu ziren lehen hamarrak: *Euskararen historia laburra* (Iván Igartua eta Xabier Zabalza), *XX. mendeko euskal literatura* (Estibalitz Ezkerra), *Euskal musika klasikoa* (Karlos Sánchez), *Euskal kantagintza: pop, rock, folk* (Jon Eskisabel), *Estanpa bilduma* (Ikusizko arteak, Miren Jaio), *Euskal zinema* (Joxean Fernández), *Euskal dantza* (Oier Araolaza), *Bertsolaritza* (Joxerra Garzia), *Tradizioak* (Joseba Zulaika) eta *Euskal sukaldaritzaz* (Hasier Etxeberria). Arkitekturen eta diseinuari dagokiona (Pello Agirrek osatua) eta euskal antzerkiari buruzkoa (Pedro Bareak egina) laster argitaratuko dira.

Zabalkundea helburu, liburuok hiru ledunak dira (euskara, gaztelania eta ingelesa) eta Institutuak azoka, jaialdi, unibertsitate, aurkezpen, jardunaldi eta abarretan erabiliko ditu. Bestalde, [www.etxepareinstitutua.net](http://www.etxepareinstitutua.net) orrian ere eskuragarri daude, pdf formatuan.



## Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren hedapena 2012an



Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) hedapena zabalduz joan da azken urteotan. Urtetik urtera toki-entitate gehiagok eman dituzte urratsak planak abian jartzeko edota

garatzeko. Hori horrela, aurtengo zortzi toki-entitate berrik diseinatuko dute lehenengoz Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia; joan den urtean, berriz, hiru izan ziren bidea jorratu zutenak. Hona hemen aurtengo toki-entitateak: Aiarako Kua-drilla, Antzuolako Udala, Durangoko Merinaldeako Amankomunazgoa, Elduaingo Udala, Gazteluko Udala, Oñatiko Udala, Orendaingo Udala eta Trapagarango Udala.

Gaur egun 157 toki-entitatek eskatu dituzte diru-laguntzak plan horiek garatzeko (guztira 171 toki-entitate dira EBPN garatzen dabiltzanak). Argi dago diru-laguntza lerroa bideratzeak (hiru lurraldeetako foru aldundiek ere laguntzak eskaintzen dituzte) lagundu egin duela horretan. 2012ari dagokionez, 1.630.000 euro jarri ditu Eusko Jaurlaritzak deialdian eta euskara biziberritzeko toki-entitateek burututako 2.960 ekintza lagundu dira. Aurreko urtean, aldiz, 2.082 ekintza izan ziren.

Hedapenari dagokionez, hauek dira lurraldekako datuak: Gipuzkoan, 70 toki-entitate; Bizkaian, 79 toki-entitate, eta Araban, 22 toki-entitate.

## NPLDren bilerak Korsikan

Hiru bilera burutu ditu Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sareak (Network to Promote Linguistic Diversity) urriaren 3tik 5era bitartean. Batetik, Presidenteen Batzordea bildu zen; bestetik, Zuzendaritza Batzordea eta, azkenik, Batzar Nagusia.

Hona hemen bileretan aztertu ziren gai nagusiak: 2011ko kontuen balantzea eta 2012ko lehen sei hilekoarena onartu ziren, bai eta 2013ko lan-programa eta aurrekontua ere.

Sareak Europako Batzordearen diru-laguntza izango du datozen hiru urteotan. Guztira, 414.000 euro jasoko ditu hainbat lan eta ekintza aurrera eramateko. Diru-laguntza hori 2013ko urtarrilaren aurretik gauzatu da. Diruz lagundutako paketeen artean "Hizkuntzak eta Ekonomia" dago. Horren ardura Eusko Jaurlaritzarena izango da.

Batzar Nagusiak lau kide berri onartu zituen: bi Galeskoak, bat Frisiakoa eta bat Okzitaniakoa. Azkenik, hautatu beharreko bi kargudun berriak aukeratu zituen: Janne-wietse de Vries, Frisiako Gobernu-ko frisia hizkuntzarako sailburordea, presidente kargurako, eta Yvonne Griley, Kataluniako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia, presidenteordeetako bat izateko.



## HIZKUNTZA ESKUBIDEEI BURUZKO KANPAINA



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hizkuntza-eskubideei buruzko kanpaina burutuko du urriaren 29tik azaroaren 4ra bitartean. "Zure hizkuntza-eskubideak babestuta daude" leloa duen kanpainaren bidez, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuta daudela adierazi nahi da. Kanpainaren helburua gizarte elebidun baten alde sentsibilizatzeko beste urrats bat da eta horretan laguntzeko Elebide dago.

Horretarako, EAEko hiriburuetan kanpainaren irudi erakargarria jarriko da zenbait euskarritan: Gasteizko tranbian, Donostiako hiri barneko autobusetan eta Bilboko metroan, besteak beste. Horrez gain, administrazio-ko hainbat lekutara ere bidaliko da kanpainaren irudia eta mezua zabaltzen duen informazioa.

Eusko Jaurlaritzak Elebide (Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua) sortu zuen 2008an, EAEn bi hizkuntza ofizialen arteko oreka lortzeko asmoz. Gizartearen eskaera bati erantzutera dator Elebide, EAEn benetako elebitasuna lortzeko bideak jartzera, horrela bakkarik berma daitekeelako euskal herritar guztiak nahi duten hizkuntzan bizitzeko aukera izatea.

## Etorkinentzako ikastaroa on line

Etorkin ugari etorri da azken urte hauetan Euskadira, hemen bizitzen gelditu eta bertakotzeko asmoz. Egoera soziolingüistiko horri hizkuntza politikaren alorrean erantzun bat eman nahian, 2004. urtean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta HABEK AISA proiektua jarri zuten martxan. Egitasmo horren helburu nagusia etorkinak euskarara hurbiltzea izan zen, euskal gizartearen hobeto integratzea zitezen. Horretarako, AISA ikasmaterialak eta harrera-ikastaroak sortu eta antolatu ziren.

2011. urtean AISA ikasmaterialak eta hiztegi lagungarria bakarkako ikas ereduera eta teknologia berrietara egokitzeko egitasmoari heldu zion HABEK. Orain, AISA materiala didaktikoki egokitu eta euskara ikasteko oinarritzako on line ikastaroa sortu berri du. Tutorerik gabeko ikaskuntzan diseinatuta dago, 60-80 orduko iraupena du eta doakoa da.

Ikastaro horretako eredu metodologikoaren ardatza eguneroko bizimoduan egiten ditugun jarduerak lantzea da, egungo euskarri teknologikoei bide ematen duten estrategia erabiliz eta trebetasun komunikatiboak garatuz.

Ikasmaterial horren helburua euskaltegi-tako ohiko ikastaroetan parte hartzeko bidea erraztea da, etorkinek Euskal Herriko ohitura, sinesmen, gustu, eta abarren berri izan dezaten.

